

EAS, Euskararen Adierazle Sistema

Euskararen Adierazle Sistema (EAS) aurkeztu dute Donostian, euskararen egoeraren inguruko informazioa biltzen duen tresna berritzaile bat

- *Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak, Euskararen Erakunde Publikoak eta Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko foru aldundiek sustatu dute proiektu hau.*

Donostia, 2017/12/20

Euskararen Adierazle Sistema (EAS) aurkeztu dute gaur, Donostian, gure hizkuntzaren egoeraz informazioa era planifikatuan eta sistematikoan emango duen tresna hau bultzatu duten erakunde nagusiek. Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak, Euskararen Erakunde Publikoak eta Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko foru aldundiek sustatutako ekimen honen baitan 33 adierazle nagusi bildu dira, euskararen egoeraren inguruan informaziorik nabarmenena ematen dutelakoan. Informazio hori guztia, momentuko www.euskadi.eus/EAS eta www.mintzaira.fr webguneetan gaurtik aurrera kontsulta daiteke (laster proiektua sustatu duten gainerateko erakundeen webguneetan ere izango dira datuak).

Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua, Mikel Arregi Nafarroako Gobernuko Euskarabidea institutuko zuzendaria eta Mathieu Bergé Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoaren presidente ordea izan dira tresna hau aurkezteko arduradunak. Haiekin izan dira, baita ere, Igone Martinez de Luna Arabako Euskera, Kultura eta Kirol diputatua; Ana de Castro Bizkaiko Euskara zuzendaria; eta Gotzon Egia, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Zuzendaritzako zerbitzburua. Proiektuak 389.017 € jasoko ditu Europar Batasunak eskainitako Interreg-POCTEFA diru-laguntzetatik eta posible egiteko prozesua lau urtez luzatu da. Diru-laguntza honetaz gain, erakundeek 209.471 € inbertitu dituzte; guztira, 598.488 €ko aurrekontua izan du proiektuak.

“Hizkuntza politikaren alorrean aspalditik egon da Euskararen Adierazle Sistema (EAS) bateratua izateko anbizioa. Orain arte erakunde bakoitzak bazituen bere erreferentziazko adierazleak, baina ez zen horrelako lankidetzarik sustatu garrantzitsuenak nabarmentzeko. Gaur aurkeztu dugun webgunean pisuzkoenak jaso dira, eta era dinamikoan berri ahaz izango dira beharrezko ikusten bada”, azaldu du Zupiria sailburuak.

Hainbat iturri

Proiektu honen abiapuntuan euskararen errealitatea al bait zehatzen ezagutzeko helburua dago, beharrezkoa baita hizkuntza politikarik eta estrategiarik eraginkorrenak sustatzeko. Euskararen egoera arlo ezberdinetan ezagutzeko hainbat tresna eta ikerketa daude gurean: Inkesta Soziolinguistikoa, Arrue Txostena, zentsua, Kale Neurketa... EASen iturri hauetatik hartutako daturik esanguratsuenak bildu dira eta 33 adierazle horiek hautatu dira, beti ere adostasun politikoan, teknikoan eta gizarte mailakoan oinarrituta. Proiektuak, halaber, izaera dinamikoa izango du eta adierazle berriak gehi daitezke aurkeztutako sistemara.

Adierazle hauek bost multzotan banatu dira: euskararen estatus juridikoa, ardatzen datu orokorrak, jabeakuntza adierazleak (gaitasuna, erabilera...), hizkuntza-adierazle orokorrak (ingurune digitalean duen pisua, kultura, arlo sozioekonomikoak...) eta adierazle soziodemografikoak (biztanleriaren ezaugarriak loturik, etab).

EASek euskararen lurralde osoa hartzen du eta, honi esker, administrazioek zein era askotako erakundeek jatorri ezberdinetako hainbat datu izango dituzte eskura. Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak iragan uztailearen 3an sinaturiko lankidetzaren hitzarmenak ahalbidetu du euskararen eremu osoa hartzeko aukera.

Mathieu Bergék adierazi du europar finantzamendu honen garrantzia, abiapuntua baita Europar finantza-bideek eta bereziki POCTEFA ekintza-programa berriek "hizkuntza politikaren erronkak kontuan hartzeko". Halabere, iragan uztailearen 3an Iruñean Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak euskara sustatzeko sinaturiko hitzarmena ekartzen ari den onurak azpimarratu ditu. Nafarroko Gobernuko ordezkari Mikel Arregik ere alderdi hori nabarmendu du: "Hitzarmen hau sinatu baino lehen hainbat proiektu elkarrekin landu baditugu ere, esan behar da aldaketa nabarmena izan dela eta unean uneko elkarlan eozera batetik lankidetzaren planifikatu batera pasatu garelako".

Aplikazio informatikoa

Gaur bertan abian jarri da EASen datuak jasotzen dituen aplikazio informatikoa, momentuko www.euskadi.eus/EAS eta www.mintzaira.fr web guneetan. "Tresna hau oso baliagarria izango da euskararen eremuan hizkuntza politika kudeatzeko ardura duten administrazio guztientzat. Erabilgarria izango da, baita ere, bestelako hainbat erakunderentzat: unibertsitateak, enpresak... Horrekin batera, hiritar guztien eskura izango dira datu horiek, eta gai honetan interesa duten guztiek kontsultatu ahal izango dute. Lau hizkuntzatan izango dira datuak, euskararen eremuan, maila batean edo bestean, ofizialak diren hiru hizkuntzetan: euskara, gaztelania eta frantsesa, eta, horrez gain, ingelesez. Izan ere, badakigu asko direla nazioartean euskararen biziberritze prozesuan interesa dutenak", gehitu du Zupiriak.

EAS posible egiteko prozesua 2013an hasi zen eta, hurrengo urtean, EASen egitura zehaztu zen: Batzorde Sustatzailea, Batzorde Teknikoa eta Batzorde Exekutiboa. EASen zuhaitz tematikoa zehaztu zen gerora, eta horren arabera lehen adierazle definitu eta onartu ziren. Europar Batasuneko Interreg-POCTEFA diru-laguntzen lehenengo deialdira aurkeztu zen 2015ean eta, azkenik, aplikazio informatikoa zehaztu zen.



Interreg
POCTEFA



- ❖ Europako Eskualde Garapenerako Funtsak (EEGF) proiektuaren % 65a ordaindu du, Espainia-Frantzia-Andorra Interreg V-A programaren bitartez (POCTEFA 2014-2020). POCTEFaren xedea da Espainia, Frantzia eta Andorraren arteko mugaldearen integrazio ekonomikoa eta soziala sustatzea. Bere laguntza ekonomia, gizarte eta ingurumen arloetako mugaz gaindiko jardueren garapenera mugatzen da, lurraldearen garapen iraunkorraren aldeko baterako estrategien bidez.